



5. GAIA. ENGRANAJEEN ZINEMATIKA. AUTOEBALUAPENA	2
5.1 ENUNTZIATUA	2
5.1 EMAITZAK	3

5. GAIA. ENGRANAJEEN ZINEMATIKA. AUTOEBALUAPENA

5.1 ENUNTZIATUA

1) Hortz zuzeneko engranaje zilindriko batean z_1 hortzeko pinoi batek (1) eta z_2 hortzeko egurpil batek (2) honako erlazioa betetzen da, non R_1 eta R_2 haien jatorrizko erradioak diren, hurrenez hurren:

a) $\frac{\omega_2}{\omega_1} = \frac{R_2}{R_1} = \frac{z_2}{z_1}$

b) $\frac{\omega_2}{\omega_1} = \frac{z_1}{z_2}$ konstante da aldiunero

c) $\frac{R_1}{R_2} = \frac{z_2}{z_1}$

2) Bi engranajeen arteko higidura erlatiboari dagokion abiadura-poloa:

- a) Aldienez aldiune posizioz aldatuz doa
- b) Posizio finkoan geratzen da aldiunero
- c) Aurreko biak ez dira zuzenak

3) Hortz zuzeneko engranaje zilindrikoa eraikitzeko, 25° eko presio-angelua duen kremailera normalizatua erabiltzen bada, taillaketa-interferentzia ekiditeko beharrezko hortz kopuru minimoa ... da:

- a) 18
- b) 15
- c) 12

4) Bilkari-profilari dagokionez:

- a) Bilkari-profila ez da kurba plano
- b) Bilkari-profilak ez du betetzen ahokatzeko lege orokorra
- c) Aurreko biak ez dira zuzenak

5) Hortz zuzeneko engranaje zilindriko osaturiko pinoiak eta erruberak 24 an 33 hortz kopurua daukate, hurrenez hurren. Haien presio-angelua 20° , modulua 4,5 eta addendum berdin modulua badira.

- a) Ukipen-erlazioa 1,64 da eta ez dago erpineratzerik pinoian
- b) Ukipen-erlazioa 1,2 da eta ez dago erpineratzerik pinoian
- c) Ukipen-erlazioa 1,64 da eta badago erpineratzerik pinoian

6) Positiboki zuzendutako engranaje horzdunak zuzendu gabekoekin konparatuz gero,

- a) zuzenduek zuzendu gabekoekin baino ardatz-tarte txikiagorekin ahokatzen dute.
- b) zuzenduek eta zuzendu gabekoekin ardatz-tarte berean ahokatzen dute.
- c) zuzenduek zuzendu gabekoekin baino ardatz-tarte handiagorekin ahokatzen dute.

5.1 EMAITZAK

Galdera	Erantzuna
1	b
2	b
3	c
4	c
5	a
6	c